



25/

JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,

ZIURTATZEN DUT: Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2019ko azaroaren 14an, **504** Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

IKUSIRIK: 2019ko Aurrekontu Orokorretan, Barrundiako udalerrian erroldatutako herritarrei musika ikasketak garatzeagatik beken emakidaren oinarriak onartu ziren. Horiek emateko honako baldintza hauek bete behar ziren: adinez txikiak izatea eta ondoren zehaztuko diren ikasketak garatzea: 1. mailako irakasgaiak, musika – hizkuntza, instrumentua, armonia modernoa, instrumentu – taldea edo comboa, ahots-taldea eta irakaskuntza indartua edozein “Udal Musika Eskolatan”.

Diruz lagundu beharreko ikasturtea 2018-2019 dagokionari da.

Oinarri horiek 2019ko urriaren 09ko (117. zenbakia) Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

KONTUAN HARTUZ: Deialdia arautzen duten oinarrietako 4.2ak xedatutakoaren arabera, eskaria eta dokumentazioa 2019ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Barrundiako Udalaren erregistro orokorrean.

GERTUA IZANIK: Roberto Salgado Garcia jaunak, epean eta era egokian, honako hauei dagokien beka eskariak aurkeztu ditu:

Izena eta abizenak	Ikasketak
<i>Iker Salgado Herrera</i>	3 Musika Lengoia Bonbardinoa
<i>Urko Salgado Herrera</i>	Perkusioa Baxu Elektrikoa
<i>Alaitz Salgado Herrera</i>	Gitarra Elektrikoa

IKUSIRIK: Udaleko Kultura Teknikariak 2019ko azaroaren 11n luzatutako txostena.

KONTUAN HARTUZ: Indarrean dauden Aurrekontu Orokorretako 320.480.001 partidaren aurrekontu-zuzkidura dago.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENENGOA.- Iker, Urko eta Alaitz Salgado Herrera-ren ordezkartzan Roberto Salgado Garcia jaunari, 2018-2019 ikasturtean musika ikasketak garatzeagatik beka luzatzea. Beka horien zenbatekoa 1.240,92 €takoa da.

BIGARRENA.- Bekak berehala ordaintzea 320.480.001 partidaren pentzutan.

BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau interesdunari eta udaleko Kultura Teknikariari jakinaraztea.”

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2019ko azaroaren 14an.

